

Donostia-Gipuzkoa



Lurralde txikia

filmatze handietarako



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



ORAIN
KULTURA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Alkateordetza
Tenencia de Alcaldía

donostiasustapena
fomentosansebastián

DESARROLLO ECONÓMICO DE SAN SEBASTIÁN
DONOSTIAKO GARAPEN EKONOMIKOA
SAN SEBASTIÁN ECONOMIC DEVELOPMENT

Ikus-entzunezko habitat paregabeara

Tokiko profesionalengatik

Donostia-Gipuzkoan, ikus-entzunezko sektorearen balio-kate osoa izan dezakezu: ideia, ekoizpena, postprodukzioa eta banaketa. Ikus-entzunezko gure industrian, **kalitate bikaineko profesionalak ditugu**, horrela bermatzen dituzten estatuko eta nazioarteko sari ezberdinak irabazi dituztenak.



25 Goya sari
baino gehiago



Oscarretarako
hainbat izendapen

Pizgarri fiskalengatik

Donostia-Gipuzkoan, ikus-entzunezko sektorearentzako laguntza ez da hitz bakar batzuetan geratzen, baizik eta pizgarri fiskal garrantzitsuak daude. Euskal Autonomia Erkidegoko eta estatuko ekoizpenen inbertsioek **%30eko** dedukzioa lortzen dute Sozietateen gaineko Zergan eta **%40** obra euskaraz filmatua bada. Lurraldean filmaturiko atzeritar ekoizpenek, berriz, Euskadin egindako gastuen gaineko **%25eko** dedukzioa lortuko dute. Gainera, pizgarri horiei udal-tasen exentzioa gehi dakieke.

Kokapenengatik

Lurralde txikia izanik, Donostia-Gipuzkoan **izaera desberdineko kokapenak** ditugu; modu horretan, eszenatoki ezberdinetan filmatu daiteke ibilbide luzeak egin beharrik izan gabe. Askotariko paisaiak: kostak, mendia, hiriak, landa-eremua,... filmatzeko behar duzun guztia Donostia-Gipuzkoan aurkituko duzu.

Bizi-kalitatearengatik

Unibertsitate-ikasketak dituzten gazte asko, batez besteko per capita errenta altua eta **langabezia-tasa baxua**; gure lurraldeko bizi-kalitatearen adierazle nabariak dira. Eta ezin dira ahaztu bestelako balio ukaezinak: **kultura, gastronomia** eta **kirola**, gure gizartean oso errotuta daudenak.

“


**%30eko dedukzioa
Sozietateen gaineko
Zergan eta %40koa obra
euskaraz filmatua bada**







Esperientzia



15 urteko ibilbidea

1650 filmatze

66 film luze

baino gehiago



Juego de Tronos telesailaren lurraldea

Saria:
Location Managers Guild International Awards



Filmografia



Handia / 2017

Hamar Goya sari eta hamahiru nominazio



Amama / 2015

Euskal filme hoberenaren saria (SSIFF)



Negociador / 2014

Komedia filme hoberenaren saria (Feroz Sariak)



Loreak / 2014

Oscarretarako hautagaia, ingelesa ez den beste hizkuntza batean egindako pelikula onena bezala



8 apellidos vascos / 2014

Espainian diru gehien bildu duen espainiar pelikula



Zipi y Zape / 2013

Lau izendapen Goya sarietarako



La herida / 2013

Bi Goya sari eta Feroz sari bat

Ingurune segurua eta lagunkoia

Donostia-Gipuzkoa Europako kokapen pribilegiatuetariko bat da. Hainbat herrialdetatik gertu aurkitzen da; paisaia-aniztasuna du; esperientzia 1.640 filmatze eta grabaketa baino gehiagorekin; tokiko industria eta profesionalak nabarmenak dira; bizi-kalitate, segurtasun, enplegu, hezkuntza eta kualifikazio mailan estandarrak ditu; eta lurralde abegitsu eta atseginean eraikitzen da.



Zine Jaialdiak

Lurraldean ikus-entzunezko sektorearen erreferente bilakatzen duten jaialdi ezberdinak egiten dira:

- Donostiako Nazioarteko Zinemaldia.
- Doc of The Bay Jaialdia.
- Giza Eskubideen Jaialdia.
- Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Donostiako Astea.

Gastronomia

11 jatetxeren artean 18 michelin izar banatzen dira; ondorioz, Donostia-Gipuzkoa metro karratuko izar gehien dituen lurraldea da munduan.



Harremana

Arretarako telefonoa

+34 943 48 28 00

Harremanetarako mail-a

filmcommission@donostia.eus

Egoitza

San Roque Kalea, 120

20009 Donostia

